



VI AKTA

Gaia: Idazkari / Administrazio-laguntzaile lanpostua betetzeko langileen aukeraketa-prozesua Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan lan egiteko. Azken erabakia.

Prozesua:

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan Idazkari / Administrazio-laguntzaile bezala lan egiteko kontratazio prozesua da.

Prozesuak hiru fase ditu:

1. Hautagaien aurkezpena eta aukeraketa.
2. Ezagutza proba.
3. Elkarrizketa pertsonala eta merituen balorazioa.

Aukeraketa-prozesuaren 2 eta 3 faseak deialdiaren oinarrietan azaldutako azterketaren bi faseei dagozkie (Deialdiaren 6.2 atalean): oposizioarena, bi ariketaz osatuta dagoena (ezagutza proba eta elkarrizketa pertsonala) eta merituen balorazioa.

Elkarrizketak amaitu ondoren, eta merituen ebaluatuta, Epaimahaiak prozesuaren fase guztiak GAINDITU dituzten hautagaien behin-behineko lehentasun-ordena prestatu zuen.

2022eko azaroaren 16ko Epaimahai buruaren Ebazpenak behin-behineko lehentasun-ordena argitaratu eta 5 eguneko epea eman zuen elkarrizketen prozesuari erreklamazioak egiteko. 2022eko azaroaren 21ean amaitu zen erreklamazioak egiteko epea eta erreklamazioak aurkeztu ez zenez, jarraian behin-betiko aukeratutako hautagaiaren izena argitaratzen da:

Miren Elixabete Ugalde

Eta ordezeko hautagaiak:

Número de Registro
CN-40593081

Deialdiaren oinarrien arabera, hautagaiak hamabost (15) egun naturaleko epea izango du Ordezkaritzak eskatu dakizkion jatorrizko agiriak edo fotokopia konpultsatuak aurkezteko, horrela eskatutako eta adierazitako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

Gehienez berrogei (40) egun naturaleko epea zehaztu da lan-kontratua sinatzeko.



New Yorkeko hirian, 2022eko azaroaren 22an.

Unai Telleria
Ordezkarria
Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza
Epaimahai Kalifikatzaileko Mahaiburua

Nerea Arrieta
Arduradun Instituzionala
Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza
Epaimahai Kalifikatzaileko Idazkarria